

## **KONTROL MOZIOA**

### **Turisten uholde handiko zonaldea ezartzeko prozedura dela-eta**

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko azaroaren 14an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

## JUSTIFIKAZIOA

Honako hauek dira Udalbatzak urte hasieran, 2017ko urtarrilaren 27an, hartu zituen erabakiak:

-“Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Turisten Uholde Handiko Zonaldea delakoari buruzko elkarrizketa pluralari bide eman diezaion, eta ez dezala bere definizioa egin eragileen iritzia, sindikatuena eta Merkataritza Kontseiluko kideena, kontuan izan gabe”

-“Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio 2018ko turismo handiko eremua onartu baino lehen, Merkataritza Aholku Kontseilua dei dezala, gai hau gai-ordenean sartuta, eragileek hura lantzeko aukera izan dezaten.”

Arestian esandakoak azaroan oraindik ere bete gabe zeudenez eta, beraz, urtea bukatzera zihoala ikusita, eta berehala zonaldea ezarri beharko delakoan, interpelazioa egin genion zinegotzi ordezkariari ea nolatan ez diren erabakiok bete. Urtea bukatu baino lehen egingo zela agindu zuen, konpromisoak betetzeko asmo osoa agertuz.

Ondorengo egunetan ere ailegatu zen sindikatuen idatzia iazko asmo berak azalduz -alegia, ezarria dagoen zonaldearekin bat ez datozenez, beraien iritzia jasotzeko-. Iritzia jasotzeko, noski, non eman izan behar dutelarik.

Hala ere, ez dira bideratu erabakiei eta eskaerei dagozkien neurriak eta ondorioz, urtea bukatzeko 15 egunen faltan, zalantzarik gabe, betekizuna gero eta urgentegoa da.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

1.- Donostiako Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari, urtea bukatu baino lehen bete ditzala 2017ko urtarrilaren 27an hartu zituen erabakiak, Turisten Uholde Handiko Zonaldea delakoari dagokionez, eta, ondorioz, zonaldea ezarri aurretik, Merkataritza Aholku Kontseilua dei dezala eragileen iritzia, sindikatuena eta Merkataritza Kontseiluko kideena kontuan hartzeko.

Donostian, 2017ko abenduaren 15ean

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia